

Memoria gorde,
oraina bizi,
etorkizuna eraiki,
izan Kronikalari!



HERNANI ZIKUÑAGA AUZOA

Beldur-ikara zein barre-algara, Zikuñagan

Halloween laberintoa prestatu dute Zikuñagako eskolan, beste behin; eta gaur arratsaldeko 18:00etan zabalduko ditu atek. Mozorrotuta joan beharko du, laberintora sartu nahi duenak.

MUNTAIA ederra aurkituko du gaur ere, ziur, Zikuñaga auzora gerturatzen denak. Halloween laberintoa prestatu dute eskolan, beste urte batez, haur eta helduen beldur-ikarak zein barre-alkarak eragiteko. Aurreneko izaten du gehiago!

Arratsaldeko 18:00etan irekiko dituzte laberintoaren atak, eta urtero bezala, bakarria izango da sartzeko baldintza: mozorrotuta joatea. «Laberintoaren atzetik lan haundia dago, eta dedikazio eta esfortzu horrekiko errespetuagatik jarzen dugun baldintza bakarria

da. Ez dugu sarrerarik kobratzen», azaldu dute.

10garren urtea du aurten goa, laberintoak. «Egin genuen aurrenekoa oso kutrea izan zen, gaur egungoarekin alderatuta. Orain, segurtasun pasilloak eta gelaxkak ere eraikitzen ditugu», nabarmendu dute.

Joan den urtean, gaztelu beldurgarri bat irudikatu zuten. Denbora luzez aritu dira aurtengoa ere prestatzen... Zer izango ote da? Motozerra hotsa ez da faltako, behintzat: «klasiko bat da, hori gabe ez dago Halloween festarik». ||



Ez da nolanhiko laberintoa, Zikuñagan prestatzen dutena...

ASTIGARRAGA HONDAKINAK

Fibrozementuzko hondakinen bilketa egingo dute hilean behin, bihartik hasita

Garberako garbigunera eraman ahal izango dira, hileko aurreneko astelehenean. Mota horretako hondakin eta objektuak biltzeko protokoloa jarri du martxan San Marko Mankomunitateak.

FIBROZEMENTUZKO hondakin eta objektuak biltzeko zerbitzua izango dute eskura, bihartik, astigarrarek. Printzipioz hilean behin, aurreneko astelehenean, jasoko dituzte mota horretako hondakinak, Garberako garbigunean. Izan ere, horretarako protokolo bat ezarri du San Marko Mankomunitateak. Kontuan izan behar da, garai batean amiantoa erabiltzen zela, fibrozementua egiteko.

Goizez zein arratsaldez era-

man ahal izango dira hondakinak, 10:00etatik 13:00etara, edota 15:30etatik 18:30etara.

Kantitate haundietarako, baimen berezia behar

Astigarragako Udalak jakinarazi du, hori bai, eramandako materiala ezin dela hauskorra izan, eta egoera onean egon beharko duela, desmontatu beharrik gabe. Gainera, kantitate txikiak behar dute izan, ibilgailu berezirik gabe garraia-

tzeko modukoak, eta manipularriak. «Honako gehieneko neurriak eta kantitateak izango dira: bi fibrozementuzko plaka (4 metro karratu eta 50 kilotik beherakoak); 3 metrora arteko hodi zati bat; bost jardinera; eta 30 kilora arteko elementu apaingarriak edo bereziak», azaldu du Udalak.

Hortik gorako kantitateak izanez gero, «baimen berezia» eskatu beharko dute erabiltzaileek, San Marko Mankomuni-

tatean: 943 21 49 77. «Erabiltzaile partikularren hondakinak bakarrik onartuko dira, eta beraz, udal bilketako enpresek, industria orokorrak eta saltokiek ezingo dituzte hondakinak eraman», azaldu dute.

Garbigunean, inprimaki bat bete eta NANA aurkeztu beharko dute erabiltzaileek, eta ondoren, ibilgailuan eraman hondakinak, horretarako mugatutako eremura. Langile espezializatuek emango diete arreta. ||

HERNANI MOBILIZAZIOA

Berezia izango da asteroko zita, bihar, pentsiodunentzat

Astelehenero bezala, manifestazioa egingo dute bihar ere, eguerdiko 12:00etan Plazan elkartuta, pentsiodunek. Baina biharko zita, berezia izango da. Lan Sozialaren Kontseilu Orokorren Saria jaso berri du, Euskadiko Pentsiodunen Mugimendua; eta saria herriz herri eramango dute. Hernanin izango da bihar, eta harekin taldeko argazkia aterako dute, manifestazioaren bukaeran. ||

ASTIGARRAGA ELIZA

Faltetako igandeko meza, gaur

Gaur izango da azkeneko meza berezia, faltetako igandekoa, Astigarragan. 10:30etan izango da, eta meza horretan ospatuko dute, familien meza ere. ||

ASTIGARRAGA GAZTEAK

'Kinball' jokoan aritzeko zita, gaur

Gaur izango du azaroko bigarren ekintza, Astigarragako Gaztelekuak: Kinball joko ezezagun bezain entretenigarrian arituko dira. ||

HERNANI HERRIGUNEA

'Ama izan' saioa, etzi arratsaldean

Ama izan saioa antolatu dute etzi, asteartean, Urumea Herrigunean. Arratsaldeko 17:30etan hasita, ama izatea zer den landuko dute, zortzi protagonistaren ikuspuntutik: Engraxi, Itziar, Ihintza, Ixiar, Marga, Nahia, Nora eta Txaro. ||

HERNANI OSIÑAGA

Auzo Elkarteko bilera gaur, Arriatsu eskolan

Gaur egingo du bilera, Osiñagako Auzo Elkartea. Eguerdiko 12:00etan izango da, Arriatsu eskolan; eta honakoak landuko dituzte: urtean zehar egindakoak, Auzo Elkartearen estatutu berriak, zuzendaritza berritza, auzoan dauden beharrak, eta urte bukaerako egitekoak. ||

 Funeraria
VASCONGADA
Zure eskura

24h-ko zerbitzua
943 376 980

Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI

www.funerariavascongada.com

 ATZA

Nagusia 32, ASTIGARRAGA
943 55 49 89
ikatzataberna@gmail.com

BIKAIN
OKINDEGI TR GOZOTEGI



Eguneroko ogia beti bikain

Elkano 12 - Tel.: 943 55 31 42
Eziago poligonoa - Tel.: 943 55 00 89 20120 Hernani

GAUR Mendebaldeko haize indartsua izango da protagonista gaur. Bolada oso gogorak izango dira goizean, eta arratsaldean ahuldu arren, iluntzean indartuko da berriro. Giro euritsua izango dugu goizean, eta pixka bat atertzera egingo du arratsaldean. **Min.11° / Max.16°**

BIHAR Mendebaldeko haizea ez da hain zakar ibiliko bihar, baina bolada oso gogorak espero dira oraindik ere, bereziki goizean. Zerueta lainotuta egongo da, eta euria egingo du, gero eta ugariago eta sariago. Gauean egin dezake atertzera. **Min.12° / Max.19°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOIA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** **Garayar:** 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreoa Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **TENA ASTIGARRAGA** Nagusia, 16 **943 543718** **Gauz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



GOIZUETA ESKU PILOTA

Joko ausarta eta garaipena Iker Salaberriak, debutean

13-22 nagusitu zen goizuetarra, Rezusta lagun. Bederatzi tanto bukatu zituen berak.

GOZOA izan du estreinaldia profesionalean, borobila, Iker Salaberria goizuetarrak. 13-22 irabazi zuen debuteko partidua, ostiralean, Tolosako Beotibar frontoian. Rezustarekin nagusitu zen, Elezkano II eta Bikuñaren kontra.

Baina emaitza bakarrik ez, goizuetarrak erakutsitako joko ausarta izan zen nabarmentzekoa, ostiralean.

Hasierako urduritasuna, berehala uxatu

Urduritasun pixka bat izanen zuen hasieran, hala ere: aurreneko sarea egin, eta errematea txapa behera bota zuen; baita beste gantxo bat ere bai, hasierako tanto horietan.

Baina berehala uxatu zuen urduritasuna, eta ausart jokatu zuen, partidu osoan zehar. Erakustaldia eman zuen gainera, partiduen aurreneko erdian. Tanto ederrak bukatu zituen, bereziki txokoan moztuta zein dejadaz ia segidan egindako lauzpabost. Eta horri esker, ihes egin zuten markagailuan, urdinek (2-8). Horrek konfiantza eman zion Salaberriari, eta jokoaren dominatzaile izan zen, hainbatetan.

Lehia polita izan zuen au-



Iker Salaberria, txokoan pilota bat jaso eta dejadaz tantoa bukatzen, ostiraleko partiduan. Argazkia: ASPE Pelota

rrean Elezkanorekin, zenbait tanto korapilatsutan, eta batzuetan akatsak egin bazituen, besteetan tanto horiek ondo bukatzen asmatu ere bai, defentsan primerako lana egin ondoren. Rezusta atzean jaun eta jabe zela, tartea haunditzen jarraitu zuten, aurreneko atsedendira (4-12) zein bigarrena (7-18) iristerako.

Bukaeran kosta zitzaion gehiago tantoak bukatzen goizuetarrari, Elezkano ere finago aritu zelako orduan. Baina hala ere, gantxoak lortu zuen tanto eder bat, aurrea, eta berak eman zion bukaera partiduari, gero, txokoan erdi pare-ra gogor jotako pelota batekin.

Azkenean, bederatzi tanto eta sei akats egin zituen.

«Asko gozatu dut kantxan»

Partidua bukatu berritan, oso pozik azaldu zen Iker Salaberria: «asko gozatu dut kantxan,

horrekin geratzen naiz. Egun ona izan dut, eta eguna daukazunean aprobetxatu egin behar da. Nire jokoa ausart aritzea da, hori zen gaur egin behar nuena, eta hala kokatu dut. Beñat atzean edukitzeak konfiantza ematen du, aurrean sartzeko. Gaur pilota asko izan dut, baina badakit beste batzuetan lan gehiago egitea tokatuko zaidala».

Goizuetar askoren babesaren izan zuen harmailetan, baita pankarta bat ere, *Pausoz pauso ametsak egi bihurtuz, aupa Iker!* Etengabeak izan ziren partidu osoan zehar, bere aldeko oihu eta animoak.

«Eskerrak eman behar dizkiet zaleei, emandako babesagatik. Oso polita izan da eguna, goizetik hasita. Oso hasiera polita izan du bide honek, eta ea bide luzea den. Saiatuko gara gaurkoa bezalako egun asko izaten», nabarmendu zuen. ||

HERNANI XAKE TXAPELKETA

Lider izateko lehia gaur, Makarovek eta Martiarenak

Hernaniko Xake Txapelketaren hirugarren jardunaldia jokatu da, arratsaldeko 16:00etan hasita, Kixkalen. 12 partida izango dira, guztira.

GAUR izango du segida, hirugarren jardunaldiarekin, Hernaniko Xake Txapelketak. Kixkal tabernan izango da, arratsaldeko 16:00etan hasita, eta 12 partida jokatu dira, guztira.

Bereziki erakargarria izango da, Makarov eta Martiarenaren artekoa. Lidertza konparatzen dute, aurreneko bi par-

tidak irabazita, eta elkarren kontra ariko dira gaur. Gainerakoak, hauek izango dira: Udo Esnaola eta Joseba Goikoetxea; Erdozio eta Iturralde; Ekaitz Devesa eta Oxan; Beñat Devesa eta J. R. Altuna; Edu Sanz eta Ibon Ramos; Berrotaran eta Javier Burgos; Xerpa eta Maitane Otaola; Jose Gonzalez eta

Mikel Zubia; Beñat Murua eta Peru Dominguez; Iñaki Arrieta eta Alain; eta Jon Sagarna eta Ekain. Atsedena eskatu dute, eta 0,5 puntu jaso, Eli Agirrek eta Mertxe Egizurainek.

Bi liderren atzetik, 1,5 punturekin daude Esnaola, Oxan, Erdozio, Altuna, Devesa anaia, Iturralde eta Goikoetxea. ||

HERNANI ERRUGBIA

Partidu zaila gaurkoa, Alcobendasen zelaian

Eguerdiko 12:30etan jokatu du Hernanik, Las Terrazasen, hirugarren sailkatuaren kontra.

KONPROMISO zaila izango du Hernanik gaur, Ohorezko Mailan, azkeneko postutik ateratzeko puntuak lortzeko. Las Terrazas zelaian jokatu du, eguerdiko 12:30etan hasita, eta Alcobendas izango du kontrario; sailkapeneko hirugarren postuan dagoen taldea, hain zuzen ere.

Cisnerosen etxean galduta hasi zuten denboraldia madrildarrek; baina ordutik, partidu guztiak irabazi dituzte, joan den astekoa izan ezik: azke-

neko unean lortutako zigorkolpeari esker nagusitu zitzaion VRAC (31-33). Indartsu dabil Alcobendas, eta porrota horri buelta emateko gogoz izango dira, gainera.

Hori horrela, zaila izango dute trikoloreek, punturen bat ekartzea; baina lehenago ere erakutsi dute, edozein kontrario aurre egiteko gai direla.

Partidua zuzenean ikusi ahal izango da, www.ferugby.es atarian, edo Alcobendas Rugbyren YouTubeko kanalean. ||

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Azaroak 10: herrien ordua

Azken aste hauetan ikusi dugun moduan, egunak daude aireportuak blokeatzeko, egunak daude mobilizazio erraldoiak egiteko Katalunian edo Euskal Herrian, egunak daude lantegietan geldidunak egiteko, edo ikasleen mobilizazio indartsuak egiteko. Egunak daude mobilizazio ludikoak egiteko, eta egunak daude mendiak itxaropenez argitzeako. Egun bakoitzak bere lana dakar, egun bakoitzean erabaki behar dugu zer egin nahi dugun askatasuna lortzeko. Zentzu honetan, azaroaren 10ean hautua argi dago: egin dezakegun onena da, hautestontziak ezker independentistaren botoekin bete.

Hori frogatzeko, etxeko buzoia ireki besterik ez dugu: *Ahora España, siempre España. Más España.* Horrelako leloekin azaldu zaizkigu Madrileko alderdi guzti-guztiak. Inposizioan eta zapalkuntzan oinarritzen den proiektu bat dute,

besterik ez. Egurra eta kartzela bai hemen, bai Katalunian, eta edozein lekuan. Indarra dute, baina ez arrazoia.

Baina egoera ilun hauetan, herrien elkartasunetik etorri zaigu argitasuna. Galizia, Herrialde Katalanak eta Euskal Herriko indar independentista guzti-guztiekin elkarlanerako bidea adostu dute. Apirillean EH Bildu, BNG eta ERCK hasi zuten bide hori. Oraingoan askoz ere gehiago dira, eta horien artean, gure pozerako, Kataluniako CUP ere badago. Egoera larria dela argi dago, baina elkarturik indartsuagoak gara. Autodeterminazioa eta erabakitze eskubidea herriak eta herriarrentzat, askatasuna preso politikoentzat, herrien eta herriarrentzat, zibil eta politikoen defentsa. Bide berri baten abiapuntua, garai hobeko baten hasiera. Goazen lanera, goazen askatasunari botoa ematera.

Mikel Arrieta Iraola

IRAGARKI MERKEAK

Hernaniko alde zaharrean etxebizitza salgai; sukaldea, sala, 3 gela, 2 komun, gas kalefakzioa eta igogailua. Eraikuntza berria. **Deitu: 635 758 661**

Pisua eta trasteroa salgai Lizarraga kalean, Lizeagan, 2 logela, sukaldea, sala eta komunak. **Deitu: 659 106 467**

Neska euskalduna behar da Hernaniko taberna batean lan egiteko. **Deitu: 679 476 992 (15:30-18:30)**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**